



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-07-07

VIIURTEA 1.747.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Oinkari dantza taldekoek Agurra dantzatu zuten, udaleko eta federazioko ordezkarien aurrean. SARA GOMEZ

«KIROL GUNE BERRI BAT» IZATEKO ZABALDU DUTE BEARZANA FRONTOIA

VILLABONA Herenegun egin zuten inaugurazio ekitaldia pilotalekuan bertan; Udaletik «gustura» azaldu dira jendearen parte-hartzearekin 3

Emaitza onak lortu dituzte igerilariek Gipuzkoakoan

TOLOSALDEA Guztira 26 domina ekarri zituzten etxera Tolosaldeko igerilariek Bergaratik 3

Auzotarren parte-hartzean oinarrizten diren jaiak agurtu dituzte

TOLOSA Herenegun amaitu ziren Amaroako jaiak; atzo auzoa txukuntzen aritu ziren 2

Asko sufritu ostean finala galdu egin zuen Leitzak

LEITZA Herenegun jokatu zuten Nafarroako Herri Arteko Txapelketako finala Iruñaren aurka 4-5



Ibarrako piperra ere moto gainean ikusi ahal izan zen. SARA GOMEZ

Moto Festan izandako «giro ona» nabarmendu dute

IBARRA Langostino Elkarteko kideak gustura daude aurtengo festak izan duen harrerarekin 6

KRISTINA ARANZABE LAIN TALDEKO KIDEA

«BBK Live jaialdian geure abestiak jotzea luxua eta erronka da»

VILLABONA Etzi eskainiko duten kontzertuarekin emango diote hasiera Bilboko jaialdiari 7

Ekitaldi herriko eta jendetsuak eman dio ongietorria Bearzana pilotalekuari

Villabona » 'Herria Bizirik' jaialdiaz eta Behar-Zanako pilotarien arteko partidez gozatzeko aukera izan zen herenegun, inaugurazioan.

ENERITZ IRAOLA

Villabonako Bearzana pilotaleku inauguratu dute. Hori aitzakiaz harturik ekitaldi ezberdinak egin dituzte pilotalekuan pasa den aste-buruan. Hautsi Izagirrek, kirol zinegotziak, «oso balorazio positibo» egin du, izan ere «herritar ugari bertaratu ziren inaugurazio ekitaldira eta herritarrek ere ekitaldian bertan parte hartu zuten».

Bearzanako pilotaleku publikoa izango da, herritar orori irekia, hortaz. Etorkizunean jendea «bertara kirola egitera joateko» animatua nahi dute Udalekik.

Herenegun egin zen inaugurazio ekitaldia. Zinta moztu eta agu-



Patxi Jauregi Gipuzkoako Pilota Federazioko arduraduna eta Maixabel Arrieta alkateak zinta moztu zuten. SARA GOMEZ

rra dantzatu ostean, afizionatuen arteko eskuz binakako partidak izan ziren. Ez zen asteburuko ekitaldi bakarraz, larunbatean *Herria Bizirik* musika eta dantza uztartu zituen emanaldiaz gozatzeko aukera izan baitzen bertan.

Larunbatean, 22:30etan hasi zi-

ren Bearzana pilotalekuaren inaugurazioa zela-eta antolatutako jaialdia. *Herria Bizirik* emanaldia izan zen lehenengo ekitaldia. Herritar ugari hartu zuten parte musika eta dantza uztartu zituen emankizun honetan. Oinkari Dantza taldekoak, Nerea Barriola eta

Ana Iparragirrekin batera, izan ziren agurra dantzatzeko oholtza gainera igo ziren lehenak. Horren ostean, bertso eskolako kideak igo ziren taula gainera eta, ondoren, Villabonako Lain musik taldeak *Haika mutil* eta *Egiak*, ezinak kantuak eskaini zituzten. Gainera, So-

lano musika eskolako kideek Oinkari Dantza Taldeko dantzariekin batera euren saioa antolatu zuten, fandangoa eta arin-arina dantzatu zuten.

Bearzana pilotaleku berria inauguratzeko jaialdiaren baitan Eresargi Txiki abesbatzaren eta Loatzo musika bandaren emanaldia ere egon zen.

Arrietak eta Jauregik moztu dute zinta

Igandean, izan zen inaugurazio ofiziala. Goizetik ospatu nahi izan zuten; hala, lehenik Behar-Zana elkarte pilotarien partidak izan ziren. Maila ezberdinetako pilotariak aritu ziren aurrez aurre lehian. Ondoren, kadete eta senior mailako joko-garbi modalitateko binakako partidak jokatu ziren.

Inaugurazio ekitaldia eguerdian egin zuten, Maixabel Arrieta Villabonako alkateak eta Patxi Jauregi Gipuzkoako Pilota Federazioko arduradunak zinta moztetari ekin zioten eta Oinkari Dantza Taldeko kideek agurra dantzatu zuten. Azkenik, eskuz binakako afizionatuen partidak izan ziren Lizaso eta Esnaola, Aranburu eta Pebeten aurka aritu zirelarik.

Tolosaldeko igerilariak emaitza onak lortu dituzte Gipuzkoakoan

Igeriketa » Taldeka bost mailatan lortu dute garaipena eskualdeko kirolariak, Bergaran jokatu zituzten probetan.

E IRAOLA

Tolosa CFko igerilariak emaitza onak eskuratu dituzte Bergaran (Gipuzkoa) jokatu dituzte Gipuzkoako igeriketa probetan. Garaipena eskuratu dute taldeka bost maila ezberdinetan eta estatuko gutxienekoak ere lortu dituzte. Hamahiru garaikur ere lortu dituzte eta 26 domina eskuratu dituzte denera. Azken hauetatik, lau urrezkoak izan ziren, zortzi zilarezkoak eta gainontzeko hamalauak brontzezkoak.

Errelebuetak proban eginiko lana aipagarria izan zen, taldeko arduradunen esanetan. «Bereziki 4x100eko proban, mutilek lorturiko emaitzak gorai patuko genituzke». Iosu Karrerak, Pablo Uzku-dunek, Jokin Otaegik eta Aitor Lekuonak marka bikainak lortu zituzten, guztira 3-36-98ko emaitzarekin.

Leire Muñagorri, bikain

Bergarako igerilekua Leire Muñagorriren lan ezin hobearren lekuko izan zen. Bizkarrez eginiko proba guztietan Espainiako marka hautsi zuen Muñagorri, 50, 100 eta 200 eran.



Guztira 26 domina ekarri zituzten etxera Tolosaldeko igerilariak. HITZA

Bakarka eginiko lanetan bikain aritu ziren Tolosaldeko igerilariak. Iñaki Karrerak, marka hautsi zuen estilo eran, 400 metrotan. Maria Mansok ere gutxiengo marka lortu zen bizkarrez, 200 metrotan. Ekaitz Privado ere ondo aritu zen bular-igeriketan. Pablo Uzku-dunen lana libre eran kalitatezkoa izan zen, baita Jokin Otaegina ere.

Ez ziren atzean geratu Marta Alonso, Eneka Muñagorri, Olaia Cuadrado, Endika Arandia edota Aitor Lekuona. Azken hau, esate baterako, tximeleta-eran, 200 metroko proban, Gipuzkoako txapelduorde izan zen.

Bizkar erako proban, Ane Manso eta David Rodriguez aritu ziren 100 eta 200 metrotan, hurrenez hurren; Espainiako marka onena lortzetik oso gertu geratu ziren,

nahiz eta azkenean ezin izan zuten lortu. Ezin aipatu gabe utzi Irati Ibarbia, Iban Gabirondo, Laura eta Elena Gabirondo, Zuriñe Del Pozo, Iñigo Prada, Nestor Etxart, Eñaut Vazquez, Iñaki eta Maria Muñoa, Iñigo Alkorta eta Ane Amundarain.

Alebinen estreinaldia

Tolosaldeko igeriketa taldeko alebinak ere jokatu zuten Gipuzkoako estreinakoz. Emaitza onekin bueltatu ziren etxera; izan ere, laugarren egin zuten mutiletan, taldekoan; bigarren izan ziren nesketan, taldekoan eta hirugarren mistoan. Idoia Alonso, Jon Ander Aurkia, Imanol Eceiza, Beñat Bidaola, Egoitz Garmendia, Lerman Nieves, Jone Etxarri, Ane Amundarain, irene Zumarraga, eta Erika Amundarinek osatu zuten taldea.



TAKEko jokalariek, Frantzian

TOLOSA » TAKE saskibaloit taldekoek Nazioarteko Txapelketa bat jokatu dute Ceret herrian (Frantzia). Bost egunetan zehar taldeko 100 neska-mutilak «giro ederrean» saskibaloian aritu dira Frantzia, Katalunia eta Euskal Herriko zenbait talderekin batera. Jokalariak 8 taldetan banatu zituzten, kadete eta infantilen mailatan. Hala, iaz Rosas-era egin zuten irterari jarraipena eman diote. «Emaitzak gutxienekoak diren arren» hiru mailatan hirugarren postua eskuratu dute eskualdeko jokalariek eta «nabari da Tolosaldean saskibaloia jasaten ari den gorakada, bai maila eta bai jokalarikopuruari dagokionez». Orain atsedean hartzeko txanda heldu zaie, irailera arte behintzat... HITZA

Laskorain Ikastola

TOLOSako LASKORAIN IKASTOLAK
LANGILE HAUEK BEHAR DITU

- Magisteritzan diplomaduna Soñ Hezkuntzako berezitasunekoak. Erref: SH
- Euskal Filologian lizentziatua. Erref: EF
- Ingeles Filologian lizentziatua. Erref: IF

Derrigorrezkoak: EGA titulua edo balioakideta
Curriculumak e-maillez bidali behar dira tolosa@ikastola.net helbidera.
Jasoko diren azken eguna, uztailaren 9a.

Joxe Gabirondok irabazi du Euskal Herriko Nazioarte Erako Segaliga

Gaztelu » Gazteluarra eta Asteasuko Juan Jose Lizaso Europako Finalean ariko dira beste hamahiru segalariekin batera.

ERREDAKZIOA

Joxe Gabirondo gazteluarra irabazi zuen igandean Euskal Herriko Nazioarte Erako Segaliga txapelketa. 300 bat pertsona bildu zi-

ren Zaldibiako Iburgureneko zelaietan finala ikusteko eta oso saio fina ikusteko aukera ere izan zuten. Izan ere, Juan Jose Lizaso asteasuarrak bi segundoko alde aterazio Gabirondori Donazarren izandako bigarren saioan, baina azkenean Gaztelukoak irabazi du txapelketa 10 minutu eta 21 segundoko marka eginda. Bigarren postua Lizasorentzat izan da 11 minutu eta 15 segundoko denborarekin eta hirugarren, aldiz, Oiartzungo



Joxe Gabirondo gazteluarra irabazi du Segaligako Txapelketa eta ondorioz, Alemaniako finalean ere ariko da. HITZA

Bixente Mitxelenak egin zuen 11 minutu eta 19 segundoko markarekin.

Emakumezkoetan ez zen ezustekorik izan, Legorretako Arrate Garinek eskuratu zuen txapelketa saio bikainak eskaini eta gero.

Gabirondok saio parekatua izan zela esan zuen txapelketa buka-

terakoan eta baita gustura geratu zela egindako lanarekin ere.

Europako Finala abuztuaren bukaeran

Almitza Segal Elkarteak antolatutako Euskal Herriko Nazioarte Erako Segaligako 10 gizezko eta 5 emakumezko onenak Alema-

nian abuztuaren 22 eta 23an izango den Europako Finala jokatu dute. Emakumezkoen artean, aipatu bezala Arrate Garin joango da eta gizezkoetan Gabirondo, Lizaso eta Mitxelena 30 urte gorakoan artean joango dira. Gaintzeko zazpiak 30 urte beherakoan mailan ariko dira Alemanian.

Fernandez 49er mailako munduko txapelketetan

ERREDAKZIOA

Ibarrako Xabi Fernandezek eta Iker Martinezek esan dutenez, belako 49er izeneko mailako munduko txapelketa guztietan hartuko dutela parte. Lehiaketa hauek guztiak 2012. urtean Londresen (Ingalaterra) izango diren Olinpiar Jokoetarako prestakuntza bezala baliatu nahi dituzte.

Horiek horrela, Fernandez eta Martinez igande honetan hasi eta hilak 19 arte iraungo duen Mundu-

ko 49er Txapelketan hartuko dute parte Italiako Riva del Garda herrian. Ondoren, Sail of Gold txapelketan izango dira, irailaren 14tik 19ra, eta azaroan Frantziako Txapelketan ere hartuko dute parte. Urtea Palamos herrian (Katalunia) amaituko dute, izan ere bertan, abenduaren 17tik 22ra, Christmas Racen lehiaketa ere ariko dira. Gogoratu behar da bikoteak Volvo Ocean Raceko hirugarren postua eskuratu berri duela.

250 motorzaleren topalekua

ERREDAKZIOA

Lan eta lan aritu dira Langostino Moto Kultur Elkarteak kideak pasa den asteburu honetan. VII. Langostino Moto Festa izan dute eta izandako «giro ona» nabarmendu dute. 250 motorzalek eman zuten izena festan parte hartzeko eta larunbateko jokoetara eta Emilio Zamoraren saiora ere jende asko gerturatu zen. Igandean amaitu zuten jaia bazkalduta eta gero, baina lehenago gustukoena dutena egin zuten: motorra hartuta kilometroak egitea.



Arbizu aldera atera ziren igande goizean motorzaleak. S.GOMEZ

Laburrak

Udalak Lauburu eta Belabieta zoriondu ditu

IBARRA • Ibarrako Udalak, Kirol Batzordearen bidez, Lauburu areto-futboleko eta Belabieta gimnastika erritmikoko taldeak zoriondu ditu «2008-2009 urtean izandako emaitzengatik». «Kirol batzordetik bide horretan jarraitzeko animoak ematen dizkiegu», esan dute.

Jaietako egitaraua kanpoan bizi direnentzat

IBARRA • Ibarrako Kultura Sailak San Bartolome jaien egitaraua bidali nahi die kanpoan bizi diren ibartarrei. Hori dela eta, kanpoan bizi direnei egitaraua bidali nahi izanez gero 943 67 03 99 telefonora deitzeko edo Kultur Etxera joateko eskatu du Kultura Sailak.

Euskal Jaia antolatzeko bilera gaur, 19:00etan

ANOETA • Urriaren 11n Anoetan izango da Euskal Jaia prestatzen hasteko hurrengo bilera gaur izango da 19:00etan Udaletxean. Euskal Jaia antolatzen ari direnek herriko taldeei zein herritar orori bileretan parte hartzeko deia egiten diete.

Batzar Nagusietako autobusa hilaren 10a arte

ZIZURKIL • Gipuzkoako Batzar Nagusietako gela didaktikoa Zizurkilen izango da ostirala arte. Lehen bi egunetan Pedro Mari Otaño plazan egongo da eta gainontzekoetan Pásus plazan 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era.

Lizasok eta Loiolak irabazi zuten Usurbilen

VILLABONA • Iñaki Lizaso billabonatarak Usurbilgo pilota txapelketa irabazi zuen Santa Isabel egunean Elgoibarreko Eneko Loiola lagun zuela. Aitor Aranburu eta Antton Pebet izan zituzten aurkari eta 22-18 bukatu zuten partida. Tanto politak ikusi ahal izan ziren Usurbilen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

KRISTINA ARANZABE › Lain taldeko kidea

«Luxua eta erronka da etzi BBK Live jaialdian gure abestiak jotzea»

Musika » Etzi Bilboko Kobetamendin urteko musika jaialdi garrantzitsuenetarikoa irasiera emango dio Lain musika talde gazteak, 16:30etik aurrera.

NEREA URBIZU

Etzi, musikazale askok espero duten jaialdia izango da Bilbon: BBK Live, hain zuzen. Kobetamendin izango dira kontzertuak eta Lain taldea ere bertan izango da: hori da Gaztearen Maketa Lehiaketa irabaztearen sarrietako bat. Kristina Aranzabe abeslarietako bat da (Villabona, 1991) eta bereziki prestatzen ari dira milaka lagunengatik aurrean joko duten etziko kontzertua. Bost kidek osatzen dute taldea: Kristina Aranzabek, Leire Berasaluzek, Imanol Urkolak, Javi Ribero eta Jon Altunak.

Eta etzi Bilbora zoazte; urduri zaudete?

Momentura arte ez, lasai gaude. Eguna iristean pentsatzen dut jarriko garela. Egia esan, bertan jotzea luxua da eta erronka handia ere bai. Eskenatokia oso handia izango da, pentsa, Villabonakoan jo genuenean handia iruditzen zitzagun...

16:30ean edo hasiko zarete. Zer egingo duzue egun horretan ueña iritsi arte?

16:30ean 16:00etarako joateko esan digute. Soinu proba egin beharko dugu orduan eta segidan jo. Bertan 30-40 minutu jo beharko ditugu.

Zer entzungo du bertara joaten denak?

Lainen abestiak joko ditugu, denak gureak. Maketan daudenak eta beste batzuk ere bai, guztira 10-12 abesti izango dira. Ez du denbora askoz gehiago ematen gehiago jotzeko. Jon Altunak pianoa eta ba-

teria jotzen du, baina kasu honetan, bateria joko du. Pianoa leku txikietan edo era akustikoan jotzen dugunean hartzen du. Kasu hauetan gitarra akustikoa eta pianoa erabiltzen ditugu.

Urte eta erdi inguru daramazue elkarrekin.

Bai. Leirek eta biok Euskal Kantu Txapelketan parte hartu dugu, biek bakarrik, baina aurretik taldea osatua genuen beste hiru kideekin, baina abesti pare bat geneuzkan bakarrik. Esan beharra dut bostak Loatzo musika eskolako ikasleak ginela.

Udan zehar Tolosaldean ari zarete?

Bai. Orain arte kontzertu gutxi izan ditugu baina udari begira atera dira gehiago. Berastegiko festetan, Ibarakoetan eta Adunan adibidez, ariko gara. Kilometroak ere joko dugu, urrian.

Azken hau ere, aukera ona ez?

Bai, kilometroak 09 jain jotzea ere polita izango da. Hori ere beste erronka bat.

Bilbora jendea zuek ikustera joatea nahiko duzue.

Bai, jende ezagunaren aurrean jotzea beti ondo dago, baina garesti aterako zaie hara joaten badira. Gistu handia da bertara joatea. Egun horretan joaten denak kontzertu guztietako sarrera ordaindu behar du, ez bakarrik batena: gustuko taldeek jotzen badute joango dira, baina bestela... Lehenengoak gara jotzen eta 30-40 minutu joko ditugu. Iruditzen zait egongo direla gu ikusteko kontzertu egokiagoak BBK Live baino.

Normalean baino gehiago ari zarete prestatzen?

Zertxobait bai. Azken entsegua bihar egingo dugu. Gainera, denbora izan dugu aurretik ere prestatzeko, hainbeste kontzertu ez izatearekin denbora izan dugu.

Bilbon geldituko zarete zuensaioren ondoren?

Bai, noski, geldituko gara. Taldeko batzuei joko duten talderen bat gustatzen zaio, beraz arrazoi gehiagorekin.

Pop-rock estiloa dela diozue zuek egiten duzuen. Zuen logelatan sartu eta zer musika ikusiko-entzungo genuke?

Denetik! Oso diferenteak gara bostak. Niri orokorrean euskal musika (Zea Mays, Deskontrol), Extremoduro, Guns und Roses... Imanolek gustukoak AC-DC du. Javik denetik entzuten du, Jon oso Su ta Gar-

Etziko kontzertuan gu ikustera joatea baino, egun aproposagoak izango dira beste batzuk

16:00etan joateko esan digute, soinu proba orduan egiteko eta jarraian jotzen hasteko

Konposatzeko garaian normalean batek ideia nagusia ekartzen du eta horrela osatzen goaz

zalea da eta Leire da agian musika desberdinagoa entzuten duena gurekin konparatuta: esan daiteke beste estilo bateko musika entzuten duela; pop-agoa, dantzagarriagoa ere bai. Bera da musika egiteko garaian gehien frenatzen gaituena. Baina hala ere denoi gustatzen zaigu egiten duguna: denoi dena.

Gaztearen Maketa Lehiaketa irabaztean zer sari gehiago jaso zenuen?

BBK Liven jotzeko aukera emateaz gain 5.000 euro jaso genuen. Honekin maketa gehiago landu edo zaindu ahal izan genuen eta material pixka bat ere erosi genuen honekin. Bideoklipa grabatzeko aukera eman ziguten ere eta hala egin genuen. Emaitzarekin



SAIOA CABANAS

pozik gaude. Azken hau esperientzia polita eta ona izan zen. Nik adibidez ez nuen esperientziarik kamerearen aurrean eta aukera hori izan nuen. Zerbait desberdina izan zen.

Non entsegatzen duzue?

Villabonan bertan, udaletxearen azpiko lokal batean. Udalak lekua utzi zigun horretarako. Bihar azken entsegua egingo dugu.

Nola moldatzen zarete konposatzeko garaian?

Abestiaren arabera. Batzuetan baten batek ideia bat ekartzen du eta hortik abiatzen gara. Ez bazaigu zerbait gustatzen edo, aldatu egiten dugu baina denen artean. Letrekin ere berdina egiten dugu. Nor-

» TALDEKIDEAK

■ **Kristina Aranzabe.** Ahotsa eta batzuetan gitarra akustikoa (Villabona 1991).

■ **Leire Berasaluz.** Ahotsa eta batzuetan gitarra akustikoa (Aduna, 1992).

■ **Jon Altuna.** Bateria eta teklatu-pianoa (Ibarra, 1991).

■ **Javi Ribero.** Baxua (Villabona, 1991).

■ **Imanol Urkola.** Gitarra elektrikoa (Villabona, 1991).

malean batek egiten du eta zatiren bat ez badugu gustuko, aldatu egiten dugu. Azken batean denen artean osatzen dugu.

Andoainek Lazkaori irabazi dio

ERREDAKZIOA


Joan den larunbatean gauean ekin zitoten Amezketan Joxean Tolosa Pilota Txapelketari. Bertan, Andoain eta Lazkao aritu ziren aurrez aurre. Andoain Lazkao baino gehiago izan zen eta beraz, Lazkao txapelketatik kanpo geratu da.

zitu zuten. Lehenik kadeteen artekoa, Ulangak 18 eta Urretabizkaiak (Lazkao) 4 eginez.

Gazteen arteko partida izan zen erabakiorra, hor zegoen gakoak. Irastorzak irabazi zuen, berriz ere andoaindarrak 18 eta 14 Lazkaoko Arzelusi. Ikusten denez, lehen norgehiagoka baino parekatuagoa

behintzat, izan zen. Arzelus 12-7 irabazten joan ondoren «Irastorzak buelta eman eta andoaindarrak bigarren puntu erabakiorra lortu baitzuen».

Nagusietan Lazkaok irabazi zuen partida baina ez zion balio izan. Eskudero 9 tanto egin zuten Goikoetxearen aurrean.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Tolosa.** San Fermin festa Alde Zaharrea: Plaza Berrian 12:00etan txupinazoa eta bu-ruhandiak; 17:00etan entzierro-txoa txikientzat Alde Zaharreko kaleetan zehar, ondoren txokolate jatea eta 20:00etan *Pobre de mi*.

Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Igandean Arcena mendizerrara (Valderejon, Cueto eta Mota mendiak igoz) joango da Al-pino Uzturre elkarteak. Izen-ema-tea, elkarteak (943 652789, *alpi-noutzurre@hotmail.com*).

Kirola

■ **Tolosa.** Hilaren 11n arroila jaitsei-
ra antolatu du Oargik La Leze ko-
bazuloan (Araba). Doan Oargiko-
entzatzat eta 4,5 euro ez bazkideen-
tzat. Izen-ema-tea, 688 698642.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Garagardo festa izango da Berazubini hilaren 18an. Izen-
ematea, Berazubi elkarteak.

Irteerak

■ **Tolosa.** Hilaren 10erako Iruñako San Fermin jaietara irteera antola-
tu du Harizpek, Blanca de Navarra hotelean bazkalduz. Izen-ema-tea,
elkarteak (33 eta 30 euro).

■ **Tolosa.** Hilaren 12rako eskalada irteera antolatu du Oargik. Infor-
mazio gehiago: www.zazpitan-triangulon.com.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Pirinioetara irteera, Aizkardiren eskutik

VILLABONA ● Aizkardi mendi elkarteak Pirinioetara egingo du irteera aste-buruan. Hain zuzen, Canfranc eta Ipeko palaren arteko ibilbidea egingo dute igandean. Larunbatean abiatuko dira Villabonatik; hitzordua 19:00etan egin dute, Olaederra kiroldegian. Joateko nteresa dutenek 649 717182 telefono zenbakira dei dezakete (20:00etatik 22:00etara) edota egoitzan bertan (21:00etatik 22:00etara). Azken eguna osteguna

izango da. Larunbatean Canfranc-en igaroko dute gaua mendizaleek. Igandean, bertatik abiatuko dira Samango aintziraino (2180 metro); he-mendik La Moletaraino igoko dira; La Tronqueratik gailurrez gailur hel-duko dira Ip-eko palara (2783 metro). Hementxe ekingo diote jaitsierari, Canfraceraino. Irteera honetan 25 kilometro inguru egingo dituzte oinez eta zortzi ordu eta erdi inguruko iraupena izango du. HITZA

A Agurrak



Zorionak!

Amonak urteak bete zituen ekainaren 29an eta aitona gaur. Zorionak Intza, Ortzeta eta Itoitzen partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera, Mila esker,

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 09:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: